



# Etxalarko Ibilbideak



**GR-11 "PIRINIOKO IBILALDIA"**

**I.I.D.E.:** .

**Luz.: 11,200 km** **Des.: 300 m** **Zail.: 2** **Denb.: 2½ h.**

GR-11 ibilbidearen Elizondo-Bera/Lesaka etapako tarte lineala, Eskisaroi eta Lizaietako mendi lepoak lotzen dituena, Orabidea-Ugarana eta Tximista (Bidasoa) erreken arteko banalerroan zehar. Lepoz lepo eta mendi bizkarretik, desnibel txikiak ditu, baina oso tartekatuak. Loturak ditu Etxalarko hainbat mendi ibilbiderekin (SL NA-X "Zentinel", PR NA-15 "Orenbenta-Atxuria" eta SL NA-2 "Usategieta"). Seinalizazio eskasa dela eta, erne ibili behar da laino eta eguraldi txarreko egunetan.

ERNE: urrian, uso pasean, Nabarlatsa-Lizaietako tartea itxita dago eta ordezkoko bidea hartu behar da.

OHARRA: distantzia 11,200 km da, ez gidaliburuan agertzen den 10,500 km; halaxe, ibilbidea 3,200 km laburtzen ahal da, Ursumiatzako lepoan hasita. Ibilbidearen hasieran nahiz bukaeran ez dago garraio publikorik.

## **IBILBIDEA**

- 0,000 km: **ESKISAROIKO LEPOA** (506 m), Otsondo, Elizondo, Etxalar eta Zugarramurdi elkartzen dituen errepidean; hegoaldeko pistatik 100 metrora, "Eskisaroi" landetxea dugu. Bide zabaletik abiatuko gara, Menbebaldera basoan barna eta Altsuko mendiaren ipar magaletik.
- 1,325 km: Altsuko lepoa (516 m). Mendi magaleko bertze aldera pasa, bide zabaletik atera gabe. Metro batzuetara Baztanen eta Etxalarren arteko muga zeharkatuko dugu. Gorospilgo lepora (595 m) igo eta isurialdearen Ekialdeko magalera pasatu, hasieran konifera-baso berrien artean eta gero iralekuen artean; maldan behera hasiko da.
- 3,200 km: Ursumiatzako lepoa (530 m), Etxalartik Zugarramurdirako bide asfaltatuko 7. km-an. Aparkaleku moduko zabalgunea. Errepidea zeharkatu eta Ipar-mendebaldera igoko gara, hasieran magaletik eta gero bizkarretik doan pista zabaletik, "Zentinel" (SL NA- X) ibilbidearekin bat eginez.
- 4,800 km: Irazako lepoa (530 m), Zentinel mendiaren hegoko magalean eta harizti batean. Gure bideak, eskuinaldean, Zugarramurdiko bide zaharrarekin egiten du bat. Zuzen segi eta bi aukera: ezkerreko bide nagusitik (Etxalarko bidea) 200 m egin eta eskuinetara jotzea; edo eskuineko bidexka jarraitu eta 300 metrora lehengo bidearekin bat egitea. Maldan gora hasiko da.
- 5,750 km: Elordiko lepoa (550 m), Lopeneko borda ezker utzi eta bertze borda bat eskuinetara utzi eta gero. Metro batzuk lehenago, "Zentinel" (SL NA-X) ibilbidea bereizten da, eskuinetik Bagobilleta eta Zentinelako megalitoak eta ezkerretik Madariko Gaineko trikuharriak erakusten dituena. Maldan behera bide zabaletik pagadian barna.
- 6,320 km: Ezkerretik, ardi borda eta Etxalarko bidea (PR NA-15 "Orenbenta-Atxuria"). Zuzen jaitsi, pagadi eta hainbat basoberriren artean.
- 7,100 km: **ORENBENTAKO Atsedengunea** (445 m), iturria eta pista: ezkerretik, Lakain-Apezborro auzorako jaitsiera (SL NA-X "Zentinelako" ibilbidea); eskuinetara jo, tarte zelaitik.
- 7,250 km: Bidea bitan banatzen da. Zuzen, pista nagusia Orenbentako eta Irumugako lepoetara; ezkerreko bidetik jaitsi, luberrien artean.
- 7,900 km: Irisarrigaraia (kisulabe eder bat duena) eta Maritoneko Borda baserriak. Azken hau pasa eta eskuineko bidexkatik jaitsi, basoan sartuz; 250 metrora, Basateko erreka (350 m) zubitik zeharkatu eta maldan gora segituko dugu.





# Etxalarko Ibilbideak



- 8,575 km: Bihurgunea eta berehala bidea bitan banatzen da. Ezkerretik, Lakaingo Gaineko bidea elkartzen da (SL NA-2 "Usategieta"; ERNE: urrian, usoaren pasean, GR-11 puntu honetatik aurrera itxita egoten da eta bide honetatik desbideratu behar dugu). Eskuinetik igo, eta basotik atera.
- 8,750 km: **NABARLATSAKO LEPOA** (474 m), zabala eta belartsua, Nafarroako (Etxalar) eta Lapurdiko (Sara) mugan (50. mugarria), eta erreken arteko banalerroa. Euskal Herriko kostaldearen ikuspegi aparta. Bidegurutzeta: eskuinetik, Atxurirako bidea ("Orenbenta-Atxuria" PR NA-15 ibilbidearen desbideraketa) mendi bizkarretik, eta Sarako usategietako pista zabala; ezkerretik segi, pista segituz, metro batzuetara ehiztarien txabola ondotik eta iturri baten ondotik pasatuz.
- 9,475 km: Lakaingo lepoa (475 m). Gero bidea bitan banatzen da. Ezkerretik, Etxalarrera PR NA-15 ibilbidetik; zuzen jarraitu, pista nagusitik eta beti mendiaren iparreko isurialdeari jarraituz.
- 10,250 km: Usategietako lepoa (455 m), pago handi batzuen artean. Bertan, urrian eta Erdi Arotik dokumentatua dagoen tradizio bati segituz, sare handi baten bidez harrapatzen dituzte usoak. Horren lekukoak ditugu metro batzuk lehenago eskuinean utzi dugun usategietako harrizko dorrea eta lepoan bertan dagoen ehiztarien etxola (handik metro batzuetara "Usategieta" ostatua dugu). Pista nagusitik jarraitu.
- 10,575 km: Txorilepoa (470 m). Ezkerretik, "Usategieta" ostaturako bidexka (SL NA-2 "Usategieta"). Pista nagusiari segi eta metro batzuetara eskuinean usategietako beste trepa bat utziko dugu. Maldan behera hasten da.
- 11,200 km: **LIZAIETAKO LEPOA** (edo Lizarrieta, 440 m), Etxalar-Sara errepidean. Bertan aparkaleku zabala, ostatua eta aduana zeneko eraikuntza. Ibilbide honen bukaera (eta baita SL NA-2 "Usategieta" ibilbidearen hasiera eta bukaera ere bai). GR-11ak Ipar-mendebaldeko ko pista zabaletik segitzen du, Bera aldera.

